

EKITALDIAK-EVENTOS / SAGARRA-MANZANA / SIDRA-SAGARDOA /
SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK“Sagarretik kupelera” jarduerak
sagardotegietan.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 10/10/2014 - 15:07

Sin comentarios



Udazkena iritsi berritan, garai garrantzitsua da gure sagasti eta sagardotegientzat. Sagarra bildu eta sagardoa egiten hasteko garaia da, erabaki garrantzitsuak hartzeko garaia, eta neurri batean gozatzeko garaia ere bai, sagar eta muztio berriarekin. Garai honen garrantzia bistara atera eta sagardotegiek egiten duten lana ezagutzera emateko “Sagastitik Kupelera” ekimena antolatu du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, zenbait sagardotegik egunotan eskainiko dituzten ekitaldiak bilduz. Lau sagardotegi izango dira egitarau honetan parte hartuko dutenak, sagarraren, muztioaren eta sagardoaren inguruko

ekitaldiak jendeari eskainita.

Jendeak bertan izena emateko aukera izango du sagardotegietara deituta.

SAGAR, MUZTIO eta SAGARDO DASTATZEA IPARRAGIRRE SAGARDO GUNEAN

Noiz: Urriaren 10ean.

Ordua: Arratsaldeko 8etan.

Non: Hernaniko IPARRAGIRRE sagardotegian (Kata gunean). Osñaga auzoa, 10.

Deskribapena: Sagar mota desberdinak, muztio mota desberdinak eta sagardo mota desberdinak dastatu ahal izango dira Juan Zuriarrain enologoak gidatuta.

Izen ematea Iparragirre sagardotegian: 943 55 03 28 (Plaza mugatuak dira – Prezioa: 12 €).

ATE IREKIEN EGUNA PETRITTEGI SAGARDOTEGIAN

Noiz: Urriaren 26an.

Ordua: Goizeko 11etatik eguerdiko 13:30etara.

Non: Astigarragako PETRITTEGI sagardotegian. Petritegi baserria 8, Petritegi bidea.

Deskribapena: Sagarra biltzetik hasi, sagarra dastatu, muztioa egin eta dastatu eta sagardoa dastatzeko aukera izango da, prozesu guztia ikustearekin batean. Jendeak sagarra eta sagardoa nola egiten den ikasteko aukera izango du. Petritegiko sagastian hasiko da eguna.

Informazio gehiago: 943 45 71 88 / www.petrítegi.com/es

UROLA GUSTAGARRI II AÑOTA SAGARDOTEGIAN

Noiz: Urriaren 26an.

Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

Non: Azpeitiko AÑOTA sagardotegian. Elosiaga auzoa, 434 ctra. Urraki

Deskribapena: Urolako ekimen gastronomikoetako bat Añota sagardotegian egingo da. Sagardoaren elaborazio prozesua ikusteko aukera izango da sagardotegian bertan, dastatze eta mokadutxo batekin. Bisitariek etxeko sagar mota ezberdinak ikusi eta sagardoa kupelera iritsi bitarteko prozesua ikusi ahal izango dute. Prezioa 8,00€.

Informazio gehiago eta erreserbak: 943 81 20 92

SAGAR EZBERDINAK DASTATZEN SAIZAR SAGARDOTEGIAN

Noiz: Azaroan.

Ordua: Zehazteko.

Non: Usurbilgo SAIZAR sagardotegian. Kale-zahar auzoa, 39.

Deskribapena: Bertako sagar desberdinak dastatu ahal izango dira eta baita Frantziatik ekarritako zenbait sagar mota ere. Saizar sagardotegian bertan egingo da sagar dastatzea Fernando Vadillo enologoak gidatuta.

Izen ematea SAIZAR sagardotegian: 943 36 45 97.

Tags: Añota, Iparragirre, Manzana, Petritegi, Sagarra, Sagarretik kupelera, Saizar

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Prentsa-Prensa
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Sin categoría
Turismo-Turismo

Post Recientes



Edorta Polo eta Imanol Manterolak beren sariak jaso zituzten Sagardoetxean.



VII. Sagar Uzta 2014 Argazki Rallyko erakusketa.



Edorta Polo eta Imanol Manterola, VII. Sagar Uzta Argazki Rallyko irabazleak.



Sagardoarekin gizendutako

el Caserío Museo Igartubeiti.XIII. Sagardo Astea,
urriaren 8tik 17ra, Igartubeiti Baserri Museoan.

Lurraldea Boletina 36. zkia.



idiak*.



“Sagardogintza gure
baserrietan” erakusketa.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar

Comentarios recientes

Ion Azpiazu en **2014ko txotx
boladaren balorazioa.**

Ion Azpiazu en **Sagardoa eta
txotx-aren erritua BBC
TRAVEL-en.**

J.M de Amassorarayn en **2014KO
TXOTX IREKIERA. KALAKAN
taldeak irekiko du txotx bolada
berria.**

**Kalakan abrirá mañana la nueva
temporada de txotx | NON
SERVIAM en 2014KO TXOTX
IREKIERA. KALAKAN taldeak
irekiko du txotx bolada berria.**
Sagardoaren Lurraldea en XIV.
Kirikoketa Besta Arizkunen,
azaroaren 2an.